

XII. Pediatría topaketak.

Arnas aparatuko

gaixotasunak.

Ordizian, 2018ko urriaren

3an

XII Reunión Pediátrica.

Enfermedades del aparato
respiratorio.

Ordizia, 3 de octubre de
2018



Pasa den urriaren 3an XII. Pediatría Topaketak izan dira Ordizian. Bertan egiteko aukeraren arrazoia, aurten 750. urteurrena ospatzen ari direla da eta, horrekin batera, biztanle guztientzako ekintza desberdinak prestatu dira, horien artean Joxi Zudairek antolatutako gai medikuak ere badaude. Horregatik lehenengo aldiz Pediatría Topaketa hauek bi atal nagusi izan dituzte, zientifikoa den bat eta guztiontzat irekia dagoen beste bat, horren barruan gai nagusia "Arnas aparatuko gaixotasunak" izan da.

Atal zientifikoa, atxikitua dauden aurkezpenez gain, Donostiako hospitaleko Amaia Cámara Otegik "Asma krialdiak bigarren mailako farmakoak larrialdi zerbitzuetan" deituriko aurkezpena egin zuen. Bestalde, saio irekietan Ordiziako Amaia Aristizabal Pediatrak moderatuko hiru aurkezpen egon ziren: Besaingo Garazi Azalegi Olaizola pediatrak egindako "Haurtzaurako arnas infelzioak. Zergatik hartzen dituzte umeek hainbeste infezio?", Pasaiko anbulategiko Ane Aldasoro Ruiz erizainak egindako "Haur asmatikoaren heziketa. Zer egin dezakegu hainbeste krisi izan ez ditzan?" eta Mendaroko hospitaleo Patricia del Rio Martínez pediatrak egindako "Zergatik uzten diote haur batzuek arnasa hartzeari lo daudenean?".

AHOZKO KOMUNIKAZIOAK

GORPUTZ ARROTZEN NAHIGABEZKO ARNASKETA, KASU BATEN HARIRA. **J. Fernandez de Retana Corres, L. Gorostiaga Allende, M. Garmendia Elizalde, J. Anasorrain Urrutia, J. Carballeares**

Perez, J.L. Jornet Montori. *Txagorritxu Ospitalea. Gasteiz.*

Sarrera. Pediatriako arnas aparatuko gaixotasunen artean gorputz arrotzen(GA) nahigabezko arnastea nahiko ohikoa da. Gure inguruan, hilkortasun tasa %0,9koa da, baina gertaera honek duen erikortasun tasa altua dela eta, diagnostiko eta tratamendu goiztiarrak beharrezkoak dira.

Kasu klinikoa. Aurkezten dugun kasu klinikoa 8 urteko neska da, zeinek, 4 eguneko eztula, sibilantziak eta arnastezintasunagatik datorren gure kontsultara. Orain dela 6 egun aztertua izan zen pipa bat kontrako eztairik sarteagatik, eremu zerbikalean sentitzen zuela esanez. Otorrinologoa baloratu zuen, fibrobronkoscopia bidez, gorputz arrotza ikusi gabe. Ikuskapenaren ostean, eta eztula egin ostean, umeak pipa irentsi izana adierazi zuen. Sintoma gabe eta birika auskultazio normala edukita, alarma zeinuak azaldu eta etxera bidali zen. Gaurkoan, azterketa fisikoan auskultazioan aireztapen falta nabariago sumatzen da eskuineko hemitoraxaren aurreko kanpoetan, sibilantziakin arnasgoran eta arnasbeheran birika osoan zehar Torax erradiografia arnasgoran eta arnasbeheran eskatzen da, zeinetan: ezkereranzko mediastino alborapena eta eskuineko birikan argitasun gehiago arnasbeheran sumatzen den. Honekin, paziente GA erazteko bronkoscopia zurruna jasotzeko lekualdatzen erabakitzen da.

Ondorioak. Oso garrantzitsua da anamnesi on bat eta prozesu honen susmo klinikoa edukitzea, bereziki arnasbideko

prozesu batean eboluzio traketsa duten pazienteetan.

Pazienteak asintomatiko agertu ahal dira, baina sintoma ohikoenak eztula eta sibilantziak dira, beti ere, kokapen eta butxaketa mailaren arabera.

Pronostikoa ona izan ohi da gorputz arrotza erausten bada, baita, diagnostikoa berantiarra denean ere.

ANTIBIOTIKOEN ERABILERA LEHEN MAILAKO ARRETAN, ADIN PEDIATRIKOAN, BARRUALDE-GALDAKAOKO ESIA. **J.M. Arginzoniz Marzana, M.J. Sarrionandia Uribelarrea, A. Anton Ladislao, N. Jaio Atela, M. Armendariz Cuñado.** *Iurreta eta Abadiñoiko Osasun Zentroak, Galdakaoko Ospitaleko Ikerkuntzako Unitatea eta Barrualde-Galdakao ESI Farmazia.*

Sarrera. Antibiotikoen erabilera desagokia da faktore garrantzitzuenetarikoa bakterioen erresistentzien sorreran. Antibiotikoen preskripzioaren % 90a Lehen Mailako Arretan (LMA) egiten da eta eskolaurreko umeek jasaten dute antibioterapia kopuru handiena. Antibiotiko kontsumoari dagokionean desberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu herrialdeen artean, herrialde bateko lurraldeen artean eta baita eremu txikiagoko profesionalen artean ere. Estatu espainiarra Europako antibiotiko kontsumitzailerik handienetarikoa da eta EAEn pareko kopuruak aurkitu ditzakegu. Ez dugu aurkitu gure erkidegoan umeetan egiten den antibiotiko erabilerearen ikerketarik. Gure helburua Barrualde-Galdakaoko ESIA LMA, adin pediatrikoan egiten dugun antibiotikoen preskripzioa ezagutu eta ezaugarriak deskribatzea da.

Metodoa. Barrualde-Galdakaoko ESIA, 0 eta 13 urtetako umeen artean, 2014,15 eta 16an Presbiden egindako preskripzioak aztertu ditugu. Ondokoa kalkulatu dugu, umeekiko preskripzio kopurua, tratamenduen prebalentzia, antibiotiko mota desberdinen erabilera eta balore hauen banaketa Lehen Mailako Arretako Unitateen (LMAU) artean. Ume populazioa Osabideren datu basetik atera dugu.



Primera parte de las XII Pediatría Topaketak en el edificio D'elikatuz, dedicado a la alimentación, donde se puede ver a los asistentes e instrumentos clásicos para el manejo de los alimentos. Joxi Zudaire

Emaitzak. Ikertutako populazioa izan da 40.682 ume 2014an; 40.901, 2015ean eta 41.059, 2016an. % 48a emakumeak. Aztertutako hiru urteetan 66.234 preskripzio egin ziren baina 56.965 kasutan (% 86) dispentsatu ziren.

Urteroko dispentsazio tasa 1000 umerekiko, 465ekoa izan zen eta urteroko prebalentzia (hau da gutxienez dispentsazio bat jaso zuten umeen portzentaia) % 30.46koa. Eskolaurreko umeek (2-5 urte bitartekoek) jasotzen dute tratamendurik gehien, % 42ko prebalentziarekin.

17 LMAUateen artean desberdintasun estatistiko esanguratsuak aurkitu dira.

Preskribitutako antibiotikoen % 66a amoxicilina izan zen, % 17a amoxiklulanikoa eta % 9a azitromizina.

Ondorioak. Barrualde-Galdakaoko ESIA umeetan egiten den antibiotiko erabilera, lehen mailako arreta zentruetan altua da Holanda edo Norvegiako (klasikoki neurriko antibiotiko erabilera egin duten herrialdeak) datuekin alderatuta. Aldi berean gure kopuruak nabarmen txikiagoak dira Espainia-estatuko datuekin eta orokorrean Mediterraneo eremuko herrialdeekin konparatuta. Antibiotiko kontsumo altuena eskolaurreko umeetan gertatzen da. Desberdintasun esanguratsuak aurkitu ditugu LMAUteen artean. % 68 tratamendu "lehen lerroko" antibiotikoekin egin da.

BIKOTE ARTEKO GENERO BORTIZKERIA UMEAREKIKO TRATU TXARRA AL DA BETI? **P. Gorrotxategi Gorrotxategi, S. Bardajá Pejenaute, A. Igarzabal Irizar, M. Ruiz del Castaño Unceta-Barrenechea, O. Azpiroz Iragarri.**

Sarrera. Bikorte arteko bortizkeria gertatzen denean, badago egoera batzuk umerekiko bortizkeria ere agertzen dena. Ikerketa epidemiologikoen arabera, %50 kasutan bortizkeria fisiko agertzen da eta bortizkeria psikologikoa kasu gehiagotan. Gainera ama eta seme-alaben arteko harremana kaltetzen dute. Orduan zalantza sortzen zaigu. Badira umeak bere etxean bikote arteko indarkeria jasaten dutenak baina beraiek ez dutela inolako tratu txarrik jasotzen?

Kasu klinikoa. 10 hilabeteko neska. Umeen osasunako programaren 2 hilabeteko errebisioan, arraroa iruditu zitzaigun, amadoskitzeari buruz galdetu genuenean, aitak izan zen galderak egiten zituena eta horrez gain amari herrieta egiten zion, berak amadoskitzea gaizki egiten zuela esanez. Arraroa egiten zitzaigun nola aita bakarrik arduratzen zen umeraan arretaz, eta bitartean, ama alde batera geratzen zen, ezer esan Gabe. Bien portaera hori arraroa iruditu zitzaigun eta ama bakarrik etorri zen kontsulta batean esan zigun



Segunda parte de las XII Pediatría Topaketak. Mesa redonda divulgativa en euskera abierta al público general en el salón de plenos del Ayuntamiento de Ordizia, donde se puede ver a la moderadora y a las tres ponentes

bere senarrak menderatuta sentitzen zela eta negar egiten hasi zela.

Gizarte-zerbitzuei jakinarazi behar zitziela esan genion eta amak erantzun zigun ez zuela

nahi kontatutakoa inori esatea, ez aitari, ezta gizarte-zerbitzuei era. Gainera a bikote-terapia hasiko zutela. Hortaz, dena konponduko zela espero zuela.

Gero bikote-terapia utzi dute eta familia, eta momento honetan ez dago inongo interbeziarik familia honetan.

Iruzkina: Kasu honetan, nahiz eta tratu txar fisikoak ez egon eta umeen ardurak aruntak izan, horek ez du esan nahi epe luzerako araso fisiko edo psikologikoak jasango ez duenik. Horregatik, garrantzizua da ume hauetan jarraipen estua izatea. Aitak amarekin duen harremana: kontrolatzailea, menderatzailea, ez da egokia umearentzat, eta familia barruan tratu txarrak egoteak, familiaren dinamika alda dezake eta guraso seme-alaben arteko harremana mindu dezakete.

PEDIATRÍA TOPAKETAK

Las Pediatría Topaketak se realizan conjuntamente entre la Asociación Vasca de Pediatría de Atención Primaria y la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría. Este año se han celebrado en el municipio de Ordizia, que celebraba el 750 aniversario de su fundación.